

## Jai egunak

Gogorazten da bihar osteguna Gizpukoan jai eguna dela eta ostiralean Ikastolan zubi izango dela.

Bestalde, martxoaren 27an, ostirala, 12:30ean Ikastolako ikasleek udaberriko oporrak hasiko dituzte **apirilaren 13a** bitarte. Haur

Eskolakoek ere egun berean hartuko dituzte oporrak, baina beren ohiko ordutegian.



## Martxoaren 25eko KORRIKA: antolakuntza eta ordutegiak

Badator Korrika! Aurtengoan ere ilusio handiz itxaroten dugu, eta **martxoaren 25ean**, 13:45 inguruan, gure herritik igaroko dela aprobetxatuz, egun berezia antolatu dugu ikastolan.

Egun hori ikastolan **irteera-egun bat bezala** antolatuko dugu, eta ikasleak Korrikaren giroaz gozatzerantz irtengo dira. Ikasleak hamaiketako eta bazkaria ekarri behar dute.



Hona hemen egunari buruzko xehetasun garrantzitsuak:

- **Korrikako Parte-hartzea mailaka:** Ekintza honetan ikasleek modu desberdinetan hartuko dute parte euren mailaren arabera:
  - **HHtik LH 5era:** Ikusle gisa joango gara giroaz gozatzerantz eta korrikalariak animatzera.
  - **LH 6ko ikasle-irakasleak:** Korrika egingo dute. Aurten ere, euren proiektuari esker, kilometro bat erosteko aukera izan dute eta lekukoa eramango dute.
  - **DBHko ikasleak** korrika aterako dira Korrikan.
- ❖ **Ordutegi orokorra:** HH eta LHko ikasleak gurekin egongo dira irteeretako ohiko ordutegian, hau da, **9:00etatik 16:30etara**. Beraz, **HH eta LH-ko ikasleentzat ez da autobus zerbitzurik eskainiko. DBHkoei aldiz, autobus zerbitzua eskainiko zaie baldin**

**eta eskaera egiten badute.** Email bat jasoko dute autobus erabiltzaileek zerbitzua erabiliko duten ala ez galdetzeko. Martxoak 23rako erantzun beharko dute.

❖ **Familiarekin Korrika egitera ateratzeko aukera:** Badakigu ikasle batzuek Korrikan ateratzeko gogoz daudela. Horregatik, bi aukera egongo dira ikasleak 12:30ean ikastolatik irteteko:

- Zuen seme-alabarekin Korrikara joan nahi baduzue, **12:30ean** jaso ahal izango dituzue betiko moduan.
- Ikasleren batek 12:30ean ikastolatik **bakarrik atera behar badu**, ezinbestekoa da etxetik **[baimen orri hau](#) sinatuta ekartzea**.

**OHARRA:** 12:30ean irteten den ikasleak ez gaitu 14:30ean ikastolan topatuko, Korrika ikusteko herrian zehar ibiliko garelako.

Ukertuko duzuelakoan eta aldez aurretik zuen laguntza eskertuz, goazen Korrikaz goatzera!

## “Autismora hurbiltzen” hitzaldia

Gogoratu **astelehenean**, martxoak 23, arratsaldeko **17:00etan** Agerialdeko 3. solairuan Autismoaren inguruko kontzientziazio eta ahalduntze hitzaldi-tailerra izango dela.



## HAUR HEZKUNTZA

### KORRIKA TXIKIA

Datorren martxoak 24, asteartea, arratsaldeko 15:15ean, HH eta LHko ikasle-irakasleok Korrika Txikia egingo dugu Korrikari ongi etorria emateko. Hemen duzue egingo dugun [ibilbidea](#). 15:50ak aldera iritsiko gara herriko frontoira eta bertan Euskara buruzko kantu batzuek elkarrekin abestuz amaituko dugu gure Korrika Txikia. Ikasleak frontoian jasoko dituzue.



**ZIRIMARA familia:** ez da ohiko saioa izango. Korrika txikia amaitu eta gero, saio irekia eskainiko da. Frontoian bertan elkartuko gara.

## Baso eskola

Honako egun hauetan ez da baso eskolarik izango:

HH3: martxoaren 24an.

HH5: martxoaren 25ean.

HH4: martxoaren 27an.



## Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu ikasleek hiruhileko honetan egindako lanak etxera eramateko, paperezko poltsa ekarri behar duzuela.



## Ipuin kontaketa

Martxoaren 26an, osteguna, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, IPUIN KONTAKETA saioa LUR KORTAren eskutik, **HH3 eta HH5** bitarteko haurrentzat eta beren guraso edo zaintzaileentzat. Gonbidatuta zaudete!!!



# LEHEN HEZKUNTZA

## Ebaluazio-txostenak

Gororazten da **martxoaren 25ean**, asteazkena, Lehen Hezkuntzako ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora igoko direla.



## Irteera kobrantzak

- ❖ **LH5** Astelehenean, martxoak 23, LH5. mailako ikasleek Pagoetara egin zuten irteeraren kobrantza egingo da. Sarrera 4,5 € eta garraioa 6,85 €, guztira (**11,35 €**)
- ❖ **LH4** Gaur, martxoak 18, LH 4. mailako ikasleek kurtso amaierako irteeraren 2. zatia (**30,20 €**) kobratuko da.
- ❖ **LH2** Gaur, martxoak 18, LH 2. mailako ikasleek kurtso amaierako irteeraren 2. zatia (**25 €**) kobratuko da.



## KORRIKA TXIKIA

Datorren **martxoak 24, asteartea**, arratsaldeko 15:15ean, HH eta LHko ikasle-irakasleok Korrika Txikia egingo dugu Korrikari ongi etorria emateko. Hemen duzue egingo dugun [ibilbidea](#). 15:50ak aldera iritsiko gara herriko frontoira eta bertan Euskara buruzko kantu batzuek elkarrekin abestuz amaituko dugu gure Korrika Txikia. **Ikasleak frontoian jaso behar dira.**



**ZIRIMARA:** ez da ohiko saioa izango. Korrika txikia amaitu eta gero, saio irekia eskainiko da. Frontoian bertan elkartuko gara.

## Galdutako gauzak

Agerialdeko sarreran dagoen “arropa galduen txokoan” dagoen arropa, martxoaren 27an Caritaseko ontzira eramango da.



# BIGARREN HEZKUNTZA

## Ebaluazio-txostenak

**Gaur** igoko dira DBHko 2. ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



## DBHko irteeren kobrantza

➤ **DBH 1eko** ikasleek ikasturte amaierako bidaia egingo dute Arantzara apirilaren 20 eta 21ean. Bertan, espeleologia eta zuhaitz parkea jarduerak egitea aurreikusten da.

**Martxoaren 23an 50€ kobratuko dira**, eta gainontzekoa ikasbidaia ondoren pasako da.



➤ **DBH 2. mailako** ikasleek ikasturte amaierako bidaia egingo dute Lekarozera, apirilaren 20 eta 21ean. Bertan, kanoraft eta Amaiurko gazteluko eta museoko bisita gidatua egitea aurreikusten da.

**Martxoaren 23an 50€ kobratuko dira** eta gainontzekoa ikasbidaia ondoren pasako da.

➤ **DBH 3. mailako** ikasleek ikasturte amaierako bidaia egingo dute Hondarribira, apirilaren 23 eta 24ean.

**Martxoaren 23an 50€ kobratuko dira** eta gainontzekoa ikasbidaia ondoren pasako da.

## DBH3 Frantsesa. Bordelera bidaia

**Frantsesa** ematen duten **DBH3**ko ikasleek martxoaren 23tik 25era Bordelera egingo dute irteera.



## **DBH4ko hautazkoen bilera, DBH3ko familientzat**

Ikasturtea aurrera doa eta DBH3ko ikasleek DBHko 4. mailako arlo jakin batzuen arteko hautaketa egin beharko dute. Irakasgai hauek ondo aukeratzeak badu bere garrantzia, Ikastolako etapa amaitu ondoren gure etorkizuneko planei erantzun behar dielako.

Hau guztia azaltzeko bilera bat prestatu dugu, zein arloren artean aukeratu behar den, zein komeni den hautatzea, zergatik... eta abar aztertzeko.

**Eguna: Martxoak 26, osteguna**

**Ordua: 17:00etan (itzulpena egongo da)**

**Lekua: DBHko eraikinean**

